

San, santu, done eta besteren erabilera

Santu izendegia onartu ondoren, beharrezkoa ikusten du Euskaltzaindiak izen horiekin joan ohi dena, aurrean edo atzean, arautzea. Gure tradizioa aztertu ondoan, hau da Akademiaren araua:

1. Euskara batuan *San / Santa* erabiltzen dira eskuarki santu izenekin: *Santa Elisabet, Santa Katalina, San Simon, San Frantzisko...* Hau da, beraz, gomendio nagusia.

2. *Done / Dona* ere erabil daitezke, bereziki gure onomastika tradizioan aurkitzen diren honako hauekin¹, hots:

- *Dona: Alodia, Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia.*
- *Done: Agustin, Bartolome, Bikendi, Bladi, Emiliano / Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Jakue, Joane, Julio, Jurgi, Justi, Kosme, Kristobal, Laurendi, Leon, Martie, Martzelo, Mateo, Meteri, Mikel, Paulo, Pelaio, Petri, Salvatore, Saturdi, Sebastian, Tomas, Zipriano.*

Aipatu izenen kasuan *Done*-ren aurrean *Jaun* ezar daiteke, hitz bakoitza bereiziz: *Jaun Done Petri*.

3. Lapurdin eta Nafarroa Beherean bizirik dauden *Jondoni* eta Zuberoako *Jondane* (hitz batean) erabil daitezke tradizioa halakoa izan denean, hala nola, santu izen hauekin:

- *Jondoni: Batista, Eztebe, Joanes, Laurendi, Murtuts, Paulo, Petri, Salvatore, Saturdi.*
- *Jondane: Joane Batista, Eztebe, Paulo, Petri.*

4. Antzinatek heldu zaizkigun kasu berezi batzuetan *Santi*-dun hagianimoak ere erabil daitezke: *Santi Kurutz, Santi Mami...*

5. Orobat, Kristoren ama aipatzeko hurrengo forma hauek onartzen dira: *Andre Maria* (Hegoaldea), *Andra Maria* (Hegoaldeko erdi-mendebaldea), *Andredena Maria* (Iparraldea), *Andre Dona Maria* (tradiziozkoa).

6. Euskara baturako² euskalkietan dauden aldaeren artean *santu / santa* erabiltzea hobesten da.

¹ Segur aski ikerketak aitzina egin ahala orain ezagutzen ez ditugun (*jaun*) *done*-dun eta *dona*-dun hagianimo gehiago kausituko dira. Arrazoi honengatik uste dugu hemen ematen den zerrenda behin betiko ezin dela itxi.

² Ikus Hiztegi Batua.

7. *Deun / Deuna* ez bitez erabil *San, Santu* edo *Done*-ren ordez. Beraz, **Mikel Deuna*, **Tiburtzio Deuna* ez dira egokiak; bai ordea, *Done Mikel, San Tiburtzio*.

8. *Santo* ere ez bedi erabil: *San Domingo, San Tomas, San Toribio*³.

9. Leku askotan erabiltzen diren *sanferminak, santakatalinak, sanprudentzioak* eta beste ontzat hartzen dira auzo, herri edo hirietako jaiak adierazteko garaian. Adibideetan ikusten den bezala, letra xehez idatziko dira honelakoak, eta pluralean deklinatuko.

10. Idazkerari dagokionez, *San, Santu, Santa, Santi, Done, Jaun Done, Dona, Jondoni, Jondane, Andre, Andra, Andredena* eta *Andre Dona* letra larriz erabiliko dira: *San Martin, Espiritu Santua, Begoñako Andra Maria. Santu, santa* eta *done*, aldiz, izen arruntak direnean, letra xehez emango dira⁴: *santu handia izan zen Frantzisko Xabierkoa; santa horren mirariak kontatzen ditu liburuak; Katalina santua oso aipatua izan zen*. Orobat, *santu* eta *done* izenondoak direnean.

Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko martxoaren 28an onartua.

³ *Santo* duten toki eta herritarren izenetan (*Santo Domingo, santodomingoar*) forma hori ontzat emana da. Ikus 38. araua eta Hiztegi Batua.

⁴ Ikus “Letra larrien erabilera euskaraz, Euskaltzaindiaren gomendioak”, *Euskera*, I, (2. aldia) 36. liburukia, 1991, 85-87 orr.